# 2020KO OTSAILAREN 14AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 14 DE FEBRERO DE 2020

**Akta zenbakia: 02/2020**
**Bilera eguna**: 2020-02-14
**Bilera mota:** ez-ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 8:30 – 8:46
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº: 02/2020**
**Fecha**: 14-02-2020
**Tipo de reunión**: extraordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 8:30 – 8:46
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Ez da bertaratu eta adierazi du:**
Jorge Segurado Iriondo

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**No asiste y excusa su ausencia:**
Jorge Segurado Iriondo

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2020ko otsailaren 14an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 8:30etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 14 de febrero de 2020, siendo las 8:30 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

## GAI ZERRENDA

**1.- 2020ko urtarrilaren 30eko bileraren akta onartzea bidezkoa bada.**

**2.- Euskaltegiko diru-laguntzen itzulketa espedienteak ebaztea.**

**3.- Errotuluaren diru-laguntza eskaera onartzea.**

**4.- Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera onartzea.**

**5.- 2020/73 eta 2020/98 dekretuen berri ematea, eskumenen abokazioena.**

## ORDEN DEL DÍA

**1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión del 30 de enero de 2020.**

**2.- Resolver expedientes de reintegro de subvenciones de Euskaltegi.**

**3.- Aprobar la solicitud de subvención para rótulo.**

**4.- Aprobar la solicitud de plaza en vivienda tutelada municipal.**

**5.- Dar cuenta de los decretos 2020/73 y 2020/98 de avocación de competencias.**

**1.- 2020ko urtarrilaren 30ko bileraren akta onartzea bidezkoa bada.**

2020ko urtarrilaren 30eko akta irakurri ondoren, ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengoa.-** 2020ko urtarrilaren 30eko akta onartzea.

**1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión del 30 de enero de 2020.**

Tras la lectura del acta del 30 de enero de 2020 y realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el acta del 30 de enero de 2020.

**2.- Euskaltegiko diru-laguntzen itzulketa espedienteak ebaztea.**

**1. GERTAKARIAK**

**LEHENA.-** 2019ko otsailaren 21eko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz, Urnietako udalerrian kultura, euskara, hezkuntza, kirol, haurreria, gazteria eta aisialdiko jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen arautegia onartu zen, 43. zenbakidun GAOn argitaratuak, 2019ko martxoaren 14ean. Bertan xedatutakoaren arabera, 2019ko irailaren 19ko Tokiko Gobernu Batzordeak diru-laguntza ematea adostu zuen ondorengo zerrendan agertzen diren eskatzaileei euskarako ikastaroetan matrikulatuta egoteagatik, 2019. ekitaldiko 1.0440.481.335.00.03 (810 kodea) aurrekontu partidaren kontura.

**2.- Resolver expedientes de reintegro de subvenciones de Euskaltegi.**

**1.HECHOS**

**PRIMERO**.- Por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 21 de febrero de 2019, se aprobaron las bases reguladoras de la normativa reguladora de las subvenciones para la financiación de actividades de Cultura, Euskera, Educación, Deporte, Infancia, Juventud y ocio en el municipio de Urnieta, publicadas en el BOG nº 43 de fecha 14 de marzo de 2019. De conformidad con lo dispuesto en las mismas, la Junta de Gobierno Local de fecha 19 de septiembre de 2019 acordó conceder subvención económica por haber estado matriculadas/os en cursos de euskera a las personas solicitantes que se detallan en la siguiente lista, a cargo de la partida presupuestaria 1.0440.481.335.00.03 (código 810) del ejercicio 2019.

| NAN / DNI | LAGUNTZA / Subvención |
|---|---|
| ***2071** | 299,20 € |
| ***9427** | 284,75 € |
| ***0768** | 284,75 € |
| ***8543** | 335,00 € |
| ***4503** | 299,20 € |
| ***8538** | 158,95 € |
| ***6922** | 400,04 € |
| ***6534** | 312,80 € |
| ***1389** | 500,00 € |

**BIGARRENA.-** Eskatzaile bakoitzari onartutako diru-laguntzaren %25 ordaindu zitzaion, eta gainerakoa, HABEk (Helduen Alfabetatze eta

**SEGUNDO-.** A cada solicitante le fue abonado el 25% de la subvención, notificándosele que el resto se abonaría una vez que HABE

Berreuskalduntzerako Erakundea) emandako diru-laguntzak kontuan hartuta, gain-finantzaketarik ez dela gertatuko ziurtatzen denean ordainduko zitzaiela jakinarazi zitzaien.

(Organismo para la Alfabetización y Re-euskaldunización de Personas Adultas) publicase sus subvenciones y tras comprobar que no fuera a haber sobrefinanciación.

**HIRUGARRENA.-** Udalak onuradun hauei kopuru hau ordaindu zien, jarraian adierazitako datan:

**TERCERO.-** El Ayuntamiento abonó a las siguientes personas beneficiarias la cantidad correspondiente, en la fecha indicada:

| NAN<br>DNI | ZENBATEKOA<br>Importe | ORDAINKETA DATA<br>Fecha de abono |
|---|---|---|
| ***2071** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***9427** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***0768** | 74,80 € | 2019-09-27 |
| ***8543** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***4503** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***8538** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***6922** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***6534** | 88,00 € | 2019-09-27 |
| ***1389** | 71,19 € | 2019-09-27 |
| ***7648** | 74,80 € | 2019-09-27 |
| **GUZTIRA / Total** | **735,93 €** | |

**LAUGARRENA.-** HABEren Zuzendari Nagusiak, 2019ko azaroaren 29ko bi ebazpenetan eta 2019ko abenduaren 13ko beste bi ebazpenetan ebatzi zituen 2018/2019 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleen diru-laguntzak, eta HABEren webgunean argitaratu zituen. Ebazpen horietako bakoitzaren I. eranskinean hainbat urnietarri emandako diru-laguntzei buruzko informazioa ageri da.

**CUARTO.-** El Director General de HABE, mediante dos resoluciones del 29 de noviembre de 2019 y otras dos resoluciones del 13 diciembre de 2019 resolvió las subvenciones a alumnas/os que hayan acreditado los niveles de euskera de HABE o sus equivalentes durante el curso 2018/2019, y las publicó en la página web de HABE. En el anexo I de cada una de esas resoluciones, aparece la información sobre las subvenciones concedidas a varias personas de Urnieta.

**BOSGARRENA.-** Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 37.3 eta 19.3 artikuluen arabera, diru-laguntzen zenbatekoak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez berak bakarrik ez eta beste diru-laguntza, sarrera edo baliabiderekin batera ere, eta hori gertatzen denean, diruz lagundutako jardueraren kostutik gora lortutako gehiegizko zenbatekoa itzuli beharko du, eta dagokion berandutze-interesa ere eskatu beharko zaio.

**QUINTO.-** Según los artículos 37.3 y 19.3 de la Ley General de Subvenciones 30/2003, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, y cuando suceda eso, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

**SEIGARRENA.-** Ikusirik Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 19an hau erabaki zuela:

**SEXTO.-** Visto que con fecha 19 de diciembre de 2019 la Junta de Gobierno Local acordó lo siguiente:

*“**Lehena.-** Diru-laguntza honen itzulketa espedienteari hasiera ematea, espedientean egiaztatuta geratzen delako diru-laguntza itzultzeko kausa erabakigarri hau, azaroaren 17ko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 38/2003 Legeko 37. artikuluan jasotzen dena:*

*“**Primero.-** Iniciar expediente de reintegro de la siguiente subvención por quedar acreditado en el expediente la siguiente causa determinante del reintegro de la subvención contemplada en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -LGS-:*

| **Itzulketa egin behar duena** Obligado al reintegro | **Itzuli beharreko kopurua/** Importe a reintegrar | **Itzulketa behartzen duen arrazoia/** Causa que determina el reintegro |
|---|---|---|
| ***2071** | 68,19 € | Jarduera bererako beste dirulaguntza jaso izana, horrek eragiten duelarik diruz lagundutako jardueraren kostutik gora lortutako gehiegizko zenbatekoa itzuli beharra (38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37.3 eta 19.3 artikuluak).<br><br>Haber recibido otra subvención para la misma actividad, lo que obliga a reintegrar el exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada (artículos 37.3 y 19.3 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones). |
| ***9427** | 71,19 € | |
| ***0768** | 74,80 € | |
| ***8543** | 71,19 € | |
| ***4503** | 71,19 € | |
| ***8538** | 71,19 € | |
| ***6922** | 71,19 € | |
| ***6534** | 66,00 € | |
| ***1389** | 71,19 € | |

***Bigarrena.-** Interesdun bakoitzari erabaki hau jakinaraztea, hamabost egun balioduneko epea emanez alegazioak egin ditzan edo egokiak iruditzen zaizkion dokumentuak aurkez ditzan.”*

***Segundo.-** Notificar a cada persona interesada el presente acuerdo, concediéndole un plazo de quince días hábiles para que alegue o presente los documentos que estime pertinentes.”*

**ZAZPIGARRENA.-** Ikusirik adierazitako epean inork ez duela alegaziorik ez eta dokumenturik aurkeztu.

**SÉPTIMO.-** Visto que nadie ha presentado ninguna alegación o documento en el plazo anteriormente indicado.

**2. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- 58/2003 Zerga-Lege Orokorra, abenduaren 17koa.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 939/2005 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Diru-bilketaren Araudi Orokorra onartzen duena.

**2. FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -LGS-.
- Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria -LGT-.
- Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas -LPACAP-.
- Real Decreto 939/2005, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento General de Recaudación -RGR-.

- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretua, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra, onartzen duena.

- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -RLGS-.

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola espediente hau ebaztea 2019ko ekainaren 25eko 2019/618 zenbakidun eskuduntza eskuordetze alkatetza Dekretuaren arabera.

Visto que corresponde a la Junta de Gobierno Local resolver el expediente conforme a lo que dispone el Decreto de Alcaldía nº 2019/618 de 25 de junio de 2019 de delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno Local.

Ikusita 2020ko otsailaren 11n Herritargoko batzorde informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía el 11 de febrero de 2020.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehena.-** Diru-laguntza honen itzulketaren beharra aitortzea, espedientean egiaztatuta geratzen delako diru-laguntza itzultzeko kausa erabakigarri hau, azaroaren 17ko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 38/2003 Legeko 36. artikuluan jasotzen dena:

**Primero.-** Declarar la obligación de reintegro de la siguiente subvención por quedar acreditado en el expediente la siguiente causa determinante del reintegro de la subvención contemplada en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones -LGS-:

| **Itzulketa egin behar duena** Obligado al reintegro | **Itzuli beharreko kopurua/** Importe a reintegrar | **Itzulketa behartzen duen arrazoia/** Causa que determina el reintegro |
|---|---|---|
| ***2071** | 68,19 € | Jarduera bererako beste dirulaguntza jaso izana, horrek eragiten duelarik diruz lagundutako jardueraren kostutik gora lortutako gehiegizko zenbatekoa itzuli beharra (38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37.3 eta 19.3 artikuluak).<br><br>Haber recibido otra subvención para la misma actividad, lo que obliga a reintegrar el exceso obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada (artículos 37.3 y 19.3 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones). |
| ***9427** | 71,19 € | |
| ***0768** | 74,80 € | |
| ***8543** | 71,19 € | |
| ***4503** | 71,19 € | |
| ***8538** | 71,19 € | |
| ***6922** | 71,19 € | |
| ***6534* | 66,00 € | |
| ***1389** | 71,19 € | |

**Bigarrena.-** Agintzea itzuli beharreko kopurua 30 eguneko epean ordaindu dadila, ES59 2095 5068 6910 6002 4824 kontu zenbakian, Kutxabank banketxean; diru-sarrera hitzartutako epean egingo ez balitz, premiamendu bidezko errekerimendua egingo da.

**Segundo.-** Ordenar que la cantidad objeto de reintegro se ingrese en el plazo de 30 días, en el número de cuenta ES59 2095 5068 6910 6002 4824, de la Entidad bancaria Kutxabank; en el supuesto de no realizarse el ingreso en el plazo convenido se procederá a su requerimiento por la vía de apremio.

**Hirugarrena.-** Interesdunei erabaki hau jakinaraztea.

**Tercero.-** Notificar a las personas interesadas el presente acuerdo.

**3.- Errotuluaren diru-laguntza eskaera onartzea.**

**Aurrekariak:**
Urnietako Udalbatzak 1997ko martxoaren 18ko bileran Urnietako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normaltzeko udal ordenantza onartu zuen, GAOn 1997ko ekainaren 5ean argitaratu zena.

Aipatu ordenantza horren 16.3 artikuluan, Udalak izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta zernahi motatako entitateei publizitateari dagokionez emango dizkien diru-laguntzei buruzkoan, eta xedatzen da euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen duenari, errotuluaren zenbatekoaren %40 ordainduko zaiola, 150,25 eurotako mugapean.

CABLENET XXI S.L.k, IFK B20841565 zenbakia duenak, [redacted]k ordezkatuta, NAN zenbakia [redacted] duenak, Maximo Yurramendi kaleko 24. zenbakiko behe lokalean jarritako publizitatearengatik diru-laguntza eskaera aurkeztu du Urnietako udal erregistroan, 2020ko urtarrilaren 9ko dataz eta 38 zenbakiarekin.

**Legeria:**
Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 22.2 artikuluaren c) atalean dioenez, zuzenean eman ahal izango dira zenbait dirulaguntza, salbuespen modura, egiaztatutako interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik edo behar bezala justifikatuko diren bestelako arrazoiengatik deialdi publikoa egin ezin denean.

Urnietako Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzaren 2.2.b artikuluan dioenez, zuzeneko dirulaguntzetan laguntzak ez dira izendun gisa agertzen udal aurrekontuan, eta aurretik ez da deialdirik egin behar. Halako laguntzak kasu hauetan ematen dira: egoera jakinetan, jarduera herriarentzat interesgarria den edo ez kontuan hartuta, eta jarduerak interes sozial, ekonomiko edo humanitarioa edo bestelako interesen bat duela egiaztatzen denean eta deialdi publikorik egin ezin denean.

**3.- Aprobar la solicitud de subvención para rótulo.**

**Antecedentes:**
El Ayuntamiento de Urnieta aprobó el 17 de marzo de 1997 la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento y municipio de Urnieta, la cual fue publicada en el BOG el 5 de junio de 1997.

En el artículo 16.3 de la citada ordenanza, en el cual se regulan las subvenciones que concederá el Ayuntamiento a entidades mercantiles y de todo tipo que no sean de carácter oficial, se establece que a quien instale un rótulo redactado únicamente en euskera se le abonará el 40% del importe del mismo, hasta un máximo de 150,25 euros.

CABLENET XXI S.L., con CIF B20841565, representada por [redacted]o, DNI [redacted] ha instalado publicidad en el local de la planta baja del nº 24 de la calle Máximo Yurramendi, para lo cual ha solicitado subvención en el registro municipal, en fecha 9 de enero de 2020 y con el nº de registro 38.

**Legislación:**
Según lo dispuesto en el apartado c) del artículo 22.2 de la Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre, podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Según lo dispuesto en el artículo 2.2.b de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Urnieta, son subvenciones directas aquellas que no figuran como nominativas en el Presupuesto Municipal y se otorgan sin convocatoria previa. Se otorgan en supuestos concretos y atendiendo al interés público de la actividad a fomentar o cuando se acrediten razones de interés social, económico o humanitario y otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Ordenantza bereko 12. artikuluan dioenez, aurreko deialdirik behar ez duten izenik gabeko dirulaguntza zuzenekoetako espedientea dirulaguntza lortu nahi duen pertsonak eskatuta hasiko da.

Según lo dispuesto en el artículo 12 de la misma Ordenanza, el expediente para la concesión de subvenciones directas, no nominativas, sin convocatoria previa se iniciará a solicitud de la persona interesada en la obtención de la subvención.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.b artikuluan dioenez, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Según lo dispuesto en el artículo 7.b de la ley de Instituciones Locales de Euskadi 2/2016 de 7 de abril, se atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la prestación de actividades y servicios a estos fines o mediante la colaboración en la financiación de actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades.

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 58. artikuluan dioenez, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek, beren eskumen-eremuan, euskararen irudi publikoa eta erabilera sustatu behar dituzte. Ildo horretan, dirulaguntzen oinarrizko araudiaren araberako zuzeneko dirulaguntzak, hobariak eta salbuespen fiskalak ezarri ahalko dituzte, hizkuntzen erabilera normalizatzeari eta sustatzeari lotutako ekitaldiak antolatzeko. Bestelako sustapen-formulak ere erabili ahal dituzte, hala nola laguntza-zentroak. Zentro horien bidez euskararen ezagutza, erabilera eta hedapena bultzatuko dute, bereziki egoera soziolinguistikoa dela-eta beharrezkoa den lekuetan.

Según lo dispuesto en el artículo 58 del Decreto sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi 179/2019 de 19 de noviembre, Las entidades locales y demás entidades que conforman el sector público local de Euskadi en el ámbito de sus competencias, han de fomentar la imagen pública y el uso del euskera y pueden establecer ayudas directas de acuerdo con la normativa básica de subvenciones así como bonificaciones y exenciones fiscales para los actos relacionados con la normalización y el fomento del uso de las lenguas; también podrán servirse de otras fórmulas de fomento como pueden ser los centros de apoyo a través de los cuales se impulsará el conocimiento, uso y divulgación del euskera, en especial donde así lo exija la situación sociolingüística.

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola espediente hau ebaztea 2019ko ekainaren 25eko 2019/618 zenbakidun eskuduntza eskuordetze alkatetza Dekretuaren arabera.

Visto que corresponde a la Junta de Gobierno Local resolver el expediente conforme a lo que dispone el Decreto de Alcaldía nº 2019/618 de 25 de junio de 2019 de delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno Local.

Ikusita 2020ko otsailaren 11n Herritargoko batzorde informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía el 11 de febrero de 2020.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena.-** CABLENET XXI S.L.ri zuzeneko dirulaguntza ematea onartzea, euskara hutsean idatzitako publizitate errotulua jartzeagatik.

**Bigarrena.-** CABLENET XXI S.L.ri aipatutako 128,26 euroko dirulaguntza ematea, 1.0440.481.335.00.08 (2519 kodea) aurrekontu partidaren kontura, erabakia hartzen denean ordainketa bakarrean ordainduko dela adieraziz.

**Hirugarrena**.- Erabakiaren berri CABLENET XXI S.L.ri eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar la concesión de subvención al CABLENET XXI S.L., por instalar un rótulo publicitario redactado únicamente en euskera.

**Segundo.-** Conceder la citada subvención de 128,26 euros a CABLENET XXI S.L., a cargo de la partida presupuestaria 1.0440.481.335.00.08 (código 2519), indicando que el pago de la misma se realizará, una vez adoptado el acuerdo, en un único pago.

**Tercero.-** Notificar este acuerdo a CABLENET XXI S.L. y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**4.- Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera onartzea.**

Mikel Pagola alkateak gaia azaltzen du.

Eztabaida txanda irekita Ainara de Miguel Urnietako EH-Bildu udal taldearen bozeramaileak hartu du hitza galdetzeko ordaindu behar duten zenbateko hori behin betikoa den, edo geroztik dirulaguntzaren bat lor dezaken.

Mikel Pagola alkateak erantzuten du bere ustez ordaindu beharreko kopurua eskatzaileran egoera ekonomikoaren arabera izaten dela, ondorioz prezio publikoa izanik diruz lagunduta dagoela ulertzen dela.

Ainarak dio gai honen lanketa egin ondoren, jabetu zirela begiratzen diren parametroak errentaren eta ondarearen arabera kalkulatzen direla, eta bestelako kargak, famili kargak adibidez ez direla kontuan hartzen.

Mikel Pagola alkateak dio galdetuko dutela ea zeintzuk diren erabiltzen diren irizpide zehatzak eta Gizarte Zerbitzuek karga horiek kontuan izaten dituzten.

*******

**4.- Aprobar la solicitud de plaza en vivienda tutelada municipal.**

El alcalde Mikel Pagola explica el tema.

Abierto el turno de debate, toma la palabra Ainara de Miguel portavoz del grupo municipal EH-Bildu de Urnieta para preguntar si el importe que tienen que pagar es definitivo o si además pueden obtener alguna subvención.

El alcalde, Mikel Pagola, responde que en su opinión la cantidad a abonar por el solicitante suele ser en función de su situación económica, por lo que al ser un precio público se entiende que está subvencionado.

Ainara dice que tras el análisis de este tema, se dieron cuenta de que los parámetros que se observan para el cálculo son en función de la renta y el patrimonio, y que no se tienen en cuenta otras cargas, como las cargas familiares.

El alcalde, Mikel Pagola, dice que preguntarán cuáles son los criterios concretos que se utilizan y si los Servicios Sociales tienen en cuenta esas cargas.

*******

**1. GERTAKARIAK**

1. Jarraian azaltzen den pertsonak eskatu du:

**1.HECHOS**

1. La persona que a continuación se especifica ha solicitado:

| **Sarrera erregistro zkia/** Nº registro de entrada | **Data/** Fecha | **Eskaeraren kontzeptua/** Concepto Solicitud |
|---|---|---|
| 2019-00000003436 | 2019/12/19 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal |

2. Gizarte langileak aipatutako espedienteari buruzko txostena egin du jarraian adierazitako datan eta adierazitako edukiarekin:

2. La trabajadora social ha emitido informe relativo a dicho expediente en la fecha y con el contenido indicado a continuación:

| **Sarrera erregistro zkia/** Nº registro de entrada | **Data/** Fecha | **Kontzeptua** Concepto |
|---|---|---|
| 2019-00000003436 | 2020/02/07 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal |

**2. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzako araudia ikusi ondoren.

**BIGARRENA.-**Gizarte langilearen txostena ikusi ondoren.

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola espediente hau ebaztea 2019ko ekainaren 25eko 2019/618 zenbakidun eskuduntza eskuordetze alkatetza Dekretuaren arabera.

Ikusita 2020ko otsailaren 11n Herritargoko batzorde informatzaileak egindako aldeko irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengoa.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera onartzea behin behineko izaerarekin:

**2. FUNDAMENTOS DERECHO**

**PRIMERO.-** Visto el reglamento de la vivienda tutelada municipal.

**SEGUNDO.-** Visto el informe de la trabajadora social.

Visto que corresponde a la Junta de Gobierno Local resolver el expediente conforme a lo que dispone el Decreto de Alcaldía nº 2019/618 de 25 de junio de 2019 de delegación de atribuciones en la Junta de Gobierno Local.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía el 11 de febrero de 2020.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar la siguiente solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal con carácter provisional:

| **Sarrera erregistro zkia/** Nº resgistro de entrada | **Kontzeptua/** Concepto | **Proposamen teknikua/** Propuesta técnica |
|---|---|---|
| 2019-00000003436 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal | **Ordainduko duen tasa (100 %a) 847,16 €/ hileko** La tasa que abonará (el 100%) 847,16 €/mensuales. |

**Bigarrena.**- Kontratua sinatu.

**Hirugarrena.-** Eskatzaileari erabaki honen berri ematea eta Gizartekintza eta Kontu-hartzailetza sailetara igortzea, dagozkion eraginetarako.

**Segundo.-** Formalizar el contrato.

**Tercero.-** Notificar el presente acuerdo a la persona solicitante y trasladarlos a los departamentos de Acción Social e Intervención, para los efectos oportunos.

**5.- 2020/73 eta 2020/98 dekretuen berri ematea, eskumenen abokazioarrena**

Udal idazkaria den Mateo Astigarragak eta Mikel Pagolak dekretuen edukia azaldu dute.

Mikel Pagola alkateak gaineratzen du hitzarmen bat sinatuko dela Foru Aldundiarekin, honek eskualdeko garapen agentziei dirulaguntza batzuk banatuko baititu energia-auditoretza lanak burutzeko. Gure kasuan, naiz eta eskualde garapen agentziarik ez izan, Buruntzaldea osatzen duten 6 udalerriak hitzartu duten lankidetza hitzarmenaren ondorioz diru-laguntza jasoko dutela.

Tokiko Gobernu Batzarra 2020/73 eta 2020/98 dekretuen berri emanda geratzen da.

**5.- Dación de cuenta de los decretos 2020/73 y 2020/98 de avocación de competencias.**

El secretario municipal Mateo Astigarraga y Mikel Pagola explican el contenido de los decretos.

El alcalde Mikel Pagola añade que se firmará un convenio con la Diputación Foral que repartirá una serie de subvenciones a las agencias de desarrollo comarcal para llevar a cabo los trabajos de auditoría energética. En nuestro caso, y sin contar con una agencia de desarrollo comarcal, como consecuencia del acuerdo de colaboración suscrito por los 6 municipios que conforman Buruntzaldea también recibirán dicha subvención.

La Junta de Gobierno Local queda enterada de los decretos 2020/73 y 2020/98.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du Tokiko Gobernu Batzar hau, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la presente Junta de Gobierno y se levanta la sesión, de lo que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria